

---

## KULTURA

---

*Karmelen* ale honetan aparteko lekutxo egin nahi izan diogu diogu Euskaltzain Oso izendatu duten Jabier Kalzakorta adiskide eta aldizkari honetako kolaboratzaileari. Lehenik, haren ibilbidea nahiko ondo ezagutzen duen baten lekukotasuna dator; bigarrenik, Jabierrek berak, bere buruaz aritzeko lotsa pixka bat gaudituz, bere *bizitzako izpi batzuk* agertzen dizkigu, eta azkenik, bere *curriculum* edo bibliografia.

### JABIER KALZAKORTA ELORZA EUSKALTZAIN OSO IZENDATUA

Soroan ereiniko hazia nola ernetzen den eta lur gozora aldatu-  
rikoko landare berriak nola datozen, nola proba egiten du-



ten, ikustea itxaropentsua izan ohi da. Gogoan dut igande arratsalde batzuetan, elizako funtzio ostean, nola egiten zuen gure amak paseotxoia etxeko norbait lagun zuela soro inguruetatik. Horrek, igande arratsaldeko baretasunean, itxaropena pizten zion eta amets eragiten.

Nik ere ia jaiotzen ikusi nuen gure Jabier; haren umetako eta geroko ibilera batzuen lekuko izan naiz, Markina-Xemeinen bizi izan naizen urte luzeen gaindegi honetatik.

Orain Euskaltzain oso izendatua izan denean, euskararen jakintsuen gorengo tontorra zapaldu duenean, aurreko haren ibilbideari erreparatu nahi diot eta batez ere haren herri-literaturaren baratzera bisita atsegin bat egin.

## Haurtzaroan eta gaztetan

“Zerutxu” Ikastolan sumatzen nituen haurrak; sumatu diot, ez ikusi, erregimenaren ikuskatzaile haien ihesi katuak umee-kin bezala ibili behar izaten baitzuten toki ezkutu eta seguru bila. Horrela, Karmengo sakristia osteko gela batean kokatu ziren. Andereño Garbiñeren ahots polita entzuten nuen haurrei euskal kantak irakasten: *Lenengotxu hori, punta behatz hori...*; *Horra hor goiko...* Geroago, Karmengo komentu honen alde bat hartu zen ikastolarako, gaur egun liburutegia den goiko alde osoa, jolastoki eta guzti. Hor haurrak ikusi ere egiten ziren, beren brusatxoez jantzirik. Haien artean zen Jabier, “Zerutxu” Ikastolako estreinako umeetako. Jolas orduan helduon ikusmiran zeudenik ere ez ziren ohartzen, berenean murgildurik, mukiak kentzeko ere astirik gabe. Mutiko argal luzanga baten itxuran irudikatuko nuke ikastolako Jabier hura, baina irudi lausoa dut, gehienbat geroago ezagutu nuenetik osatua.

Urte batzuk geroago, oraindik mutil koskorra, baina gaztetako traza hartuz zihoala, harekin tratatzen hasi nintzen Kar-

mengo elizako akolito zela sakristia aldean. Ofizioa gogoko izan behar zuen, aldi berean Xemeingo elizako akolito ere bazen-eta. Bi anaia nagusiak pilotariak zituen, zesta puntakoak; haietako batek, bigarrenak, atzelari bikainaren sona zuen. Berak zesta puntako jokoa famatzen zuen; nik, berriz, eskuzkoa. Han aritzen ginen teman, nork bereari eutsiz. Behin esan nion zestalari batzuk patal hutsak zirela eta nik neuk jokatu niokeela eskuz anaietako edozeini... Hurrengo astean han etorri zitzaidan anaiak baietz zioela eta, nahi nuenean. Jakina! Atzerantz egin nuen; izan ere, nire erronka dialektikoa zen batez ere, baina erdi benetan ere banenbilen; hemen esan ohi dugun bezala, *olgetan benetan...*

Denbora abiadura handian zihoan aurrera eta gu ere bai haren eskutik. Behin, Deustuko Unibertsitatean Euskal Filologia egitea erabaki zuela esan zidan. Ni ordurako han ari nintzen, bi urte aurretik hasita, ikasketa horiek ezarri zirenez gero bigarren urtekoa bainintzen.



*Bere etxeke sukaldean (1987)*

Jabier Bilbon jarri zen bizitzen eta euskarazko eskolak ematen zituen tarteetan. Garai hartan, hasieran behintzat, Euskal Filologiako eskolak 18:30ean hasten ziren. Egunean hiru eskola gutxienez, batzuetan lau; hiru ordu laurdenekoa bakoitza. Egunez lan egin ohi zuen jendearentzat pentsatua zelako jarri zituzten eskolak hain berandu. Haranzkoan, neguan, Trabakua igaro orduko ilundua zen; honanzkoan zer esanik ez, 22:30 aldean itzultzen baikinen. Nire bigarren eskuko Diane-6 hark ongi zekien bide hori. Bai haranzkoan bai honanzkoan, ia beterik izaten nuen autoa. Jabier ostiraletan edota ondoren jairen bat zetorreanean etorri ohi zen nirekin honantz.

Haren izaerari eta hitz egiteko erari erreparatuz, gogoan dut batetik oroimen miragarria zuela eta bestetik, amatez beterik ari zela. Euskal literaturak eta euskarak liluratzen zutela ohartu nintzen. Literaturako norbaiten edo norbaitzuen eragi-



*Bere gurasoekin (1988)*

na ageri-agerikoa zen harengan. Lauaxetaren hil aurreko olerkitxo bat, olerki erlijiosoa, Jesus Gurutzekoari (?) gaztelaniaz egina, ia osorik buruz zekien. Buruz zekizkiela esango nuke Azkueren hiztegian (V, m) seinaleaz zetozen hitzak ere, hau da, hark Markina-Xemeingotzat bere hiztegian bildurikoak. Aurreko belaunaldietako gure idazle, euskal gaiez jakintsu, Euskaltzaindiko eta abar, benetan miresten zituen. Ez zitzaion, noski, burutik pasatuko, hogeita hamar bat urte geroago bera haien mailan izango zenik. Horrela gertatu ohi da beste gauza askotan ere, bakoitza bere garaian bizi baita; baina helduon irudiko, gazte harengan zerbait berezia nabari zen; euskal arloan urrats tinkoaz zebilela sumatzen genuen. Dena dela, haren buruan ez dakit gero hartuko zuen herri-literaturaren eta ahozko tradizioen zantzurik izango zen; nik neuk orduan ez nion halakorik igarri.

### **Unibertsitateko irakaslea eta herri-literaturaren ikertzailea**

Deustuko Unibertsitateko buruek ere berariazko dohainak ikusiko zizkieten, ikasketak amaitu berri, Euskal Filologiako irakasle izendatu baitzuten. Irakasle lanean nolakoa den ikasleek esan beharko lukete, baina kanpotik begira, zorioneko joko nituzke ikasle horiek, hain irakasle jakintsua eta herri-literaturan hain jantzia izateagatik.

Unibertsitateko irakasle izatea gizartean ongi ikusia da; horrek asko janzten omen du. Baina *ofizioz* irakasle diren guztiak ez dira *afizioz* izan ohi. Nik arrainak uretan legez ikusten dut Jabier herri-literaturaren ikerketan murgildurik; hori duela bere-berea esango nuke. Horrekin ez dut esan nahi unibertsitateko lana noraezean edo erdi beharturik egingo duenik, bai zera!, baina bai ariko dela ofiziotik bere burua nola askatuko, noiz handik tartetxo bat hartuko bere afizioan murgiltzeko...

Nola piztu ote zitzaion herri-literaturaren grina gartsu hori? Hemengo klaustroaren inguruan biok egin ohi ditugun hitz-aspertu ugarietan hainbat gauzari ekin izan diogu, baina oraindik ez dit halakorik aipatu. *Antonio Zabalaren oboretan Herri literaturaz gogoeta* izeneko liburuan sumatu dut nola abiatu zen bide horretatik. Ez al da sumatzen horren zantzurik liburu horretan bildurik dagoen orduko hitzaldian eta nik hona dakardan pasarte luze samar honetan?:

“Egiten edo hezten ari garen garai horietan, edukazio senti-mental delako horretan, bihotzeko zolaraino sartzen zaizkigu



*Reus-en herri-literaturaren biltzar batean (1988)*

bizipen sakonekin lotuak dauden gure irakurketak. Egin ditugun irakurraldiak ez ezik, noiz edo zer garaitan egin ditugun ere gogoratu ohi ditugu. (...) Nik, esaterako, gogoan ondo josisia daukat noiz irakurri nuen Atañoren *Txantxangorri kantaria*. Nola, udaberriko larunbat batean, Bilboko Urazurrutiako autobus geltokian, etxerako autobusa hartzeko zain nengoela, Gotzon Garatek esan zidan euskara zoragarriko liburu bat irakurri zuela, beste inork ez zuen euskara miragarrian idatzia. Liburu hori gorago aipatu dudan Atañoren lehen lan argitaratua zen. Garai haietan niretzat munduan zen gauzarik behinena eta printzipalena euskara asko jakitea zen. Euskaraz ederlanak irakurri eta euskarazko lanez zirarratzeaz beste helbururik ez nuen. Hurrengo astelehenean, liburuaren jabe egin ondoren, amen batean irakurri nuen, ahamen batean irentsi nuen. (...) *Txantxangorri kantaria* liburuarekikoak gogoratzten zaizkidan bezalaxe, beste hainbat liburuarekikoak ere gogoan ditut, eta uste dut gogoango ditudala luzaroan.

Ez da atzo goizeko edo bart arratseko ustea, beraz, orain daukadan hau. Beti pentsatu izan dut, euskaraz dagoen liburu sail ederrena dela *Auspoa* saila, eta horrexegatik, hitzaldi honi izenburua jarri behar izan diodanean ‘Herri literaturako altxorrik handiena’ jarri diot. Hitzaldi honetan nik egin ditudan gogoetak zuei eskaini nahi nizkizueke. Gogoeta-eskutada bat eskaini nahi nizueke”.

## **Bokazio eta sentiberatasun berezia**

Beraz, *Auspoa* liburu-bilduman aurkituriko altxor prezia-tuek liluratutik barneratu zela dirudi herri-literaturan, altxor gehiagoren bila. Sua sasia bezala piztuko zitzaion grina ezin amatatzeko hori. Grina horrekin batera, berariazko sena du, usna fin-fina altxor horiek non dauden sumatzeko, gutxik baino hartzen ez dituzten xehetasun mehe txiki polit horien aho-gozoa hartzeko. Gogo-zolitasun edo zorrozatasuna deitzen dio-



gu horri. Esteban Urkiaga “Lauaxetak” olerkari-senaz –haiek esan ohi zuten *olermenaz*– ari zela, hau dio:

“Ludi onen bestaldez loratzen diran landaraen usañak goxalde bakoitxak dakarkidaz. Auxe da neure sakona! Bestiak entzuten eztaben egal-otsa neure gelara yatorr eta bar-



*Elizondon Mariano Izetarekin (ca. 2000)*



neko zugatz onetatik txorijak aidatu ziranarren, abar-dardare ezta amattu”.

Lauaxetak aipatzen digun olerkirako sentiberatasun fin hori, gure Jabierrek herri-literaturarako du. Aski da ia haren edozein testu irakurtzea horretaz ohartzeko. Goian aipaturiko Antonio Zabalaren omenaldikoan bertan sumatzen da argi-argi. Herri-tradizioaz hitz egiten da hor.

### **Berdabioren kanta**

Zenbat aldiz entzun eta kantatu ote ditugu gure balada horiek, gure lurraldean zirimiria egiten duenean bezain gauza arrunta balira bezala! Bai, bitxi eta zertzelada polit horiei erreparratu gabe, hoztasunez, axolagabetasunez. Adibide gisa bi balada aipatzen dizkigu: *Berdabioren kanta* eta *Ber(e)terretxeren k(b)antorea*. Iruzkina egiterakoan, bere ekarpena egitera jo ohi du, besteek aztertu dutena errepikatu gabe betiere. *Berdabioren kantana*, esaterako, gaia zer den azalduko digu eta bertso eta kontakizun hauen bilatzaile, biltzaile eta aztertzaileen izenak emango: Azkue, Manuel Lekuona, Aita Donosti, Gorge Riezukoa, Juan Mari Lekuona, Patziku Perurena.

Honela azalduko digu gaia: “Berdabio Nafarroako Goizuetan omen dago. Goizuetako mendi basoan. Oraindik ere zutik omen dago Berdabio burdinola eta baserria. Hango semea omen zen, berdabiotar bat omen zen, urre-meatze bat zuena eta diru faltsua egin omen zuena. Diru faltsua egiten zuen gizon honek izan zuen salatzaile bat, saltzaile bat, Trabuko deitzen zen gizatxar bat, eta Iruñeko kartzelan sartu omen zuten Berdabiotar dirugilea. Kartzelan sartu ez ezik, heriotzeko epaia ere eman zioten. Hil baino lehen berdabiotar dirugileak urte beteko epea eskatu zuen bere bizitza bertsoan jartzeko. Bere bizitza urtebetez luzatu zuen bertsoak jartzeko. Eguneko

bertso bat egin omen zuen bertsolari preso hark. Urteak egun hainbat bertso jarri zituen, beraz”.

*Urteak egun hainbateko* hori azpimarratzen du, herri-literaturan maiztxo gertatzen dena dela esanez. Esaterako, Orixek eta Juan Garmendiak diotenez, Olentzerok ere urteak egun hainbat begi omen zituen. 365 begi zituela esan beharrean, esateko era berri eta polit horretara jotzen da. Bestalde, Jabierrek azpimarratzen duena hau da: urteak egun hainbat bertso horietatik zein sorta txikia iritsi den guganaino: “Bertso-sorta laburra iritsi da guganaino. Guganainotu dentxoak ez du Berdabioren ahotik atera zen harako urteak egun hainbateko bertso-sail luze haren errainurik ematen”.

Bertso hauen inguruan hainbat istorio harrigarri zabaldu dira dio: “Bertsoekin batera, bertsoen gaineko esaunda edo leienda gixako kontakizun liluragarriak ibili dira ahoz aho. (...) Berdabioren ahoz-ahoko ixtorioetan kondenatuak, kartzelan zegoela, urteak hainbat bertso jarri zituelakoa eder egiten zaigu. Eder egiten zaigu, era berean, jakitea, Juan Mari Le-



*Manuel Lasarte bertsolariarekin (ca. 2002)*

kuonak bildu zuen bezala: *bertsoak penagarriak zirela. Inork ere ez zituela bertso horiek buruz ikasi, ijito batek ezik. Eta ijito hau, Berdabioren bertsoak tabernan kantatzen ari zela, penaz lebertua bil omen zela*".

Manuel Lekuonak bildu zuen bost ahapaldiko kantarekin hasten zaigu. Hark bildu zuenerako, "kanta murriztua, exkaxtua, erkindua" zegoela diosku. Lehenengo ahapaldian erreparatu dio. "Manuel Lekuonaren lehen ahapaldian, ordea, Azkuek, Aita Donostiak, Juan Mari Lekuonak bildu zituzten aldaeretan ez dauden zaldiaren ezaugarri, salto eta abarrak daude". Lehen ahapaldi hori, haren arabera, honela da:

*Berdabiyoren xaldiyak  
lau anakak ditu txuriyak.  
Salto batian irago zuen  
zazpi estatuko esiya;  
beste bat igaro balu  
seguru zuen biziya.*

Iruzkinean zaldiari erreparatzen dio, haren hanka zuriei eta batez ere haren saltoari. Handia da egin duen saltoa, *zazpi estatuko esiya* igarotzeko adinakoa. Hala ere ez zen nahikoa izan, ihesi zihoala bizia salbatzeko; pixka-pixka bat faltako zitzaien, *beste bat igaro balu / seguru zuen biziya* baitio. Gero beste erreferentzia batzuekin hornitzen du eta janzten zaldiaren izaera, Bizkaiko Diman bilduriko Bordegarai delako baten zaldiarekin alderatuz:

*Bordegaraien zaldie  
lau anketan zurie  
zazpi pausotan pasatuten deu  
zortzi arkuko zubie.*

Bi zaldien arteko erkaketa eginez, hau diosku gure aztertzaileak: “Berdabioren zaldia bezala *lau anketan zurie* du eta *zazpi pausotan pasatuten deu / zortzi arkuko zubie*. Berdabioren zaldiaz esaten dena, aldaera gutxi bezain estilizatu batzuk gorabehera, esaten da Bordegarairen zaldiaz. Oartzunen, Gipuzkoako ekialdean, bildu den ahapaldi edo zehaztasun bera ager daiteke Bizkaiko bazter batean, esaterako. Bizkaiko mendebaldeko Diman, kasu honetan, ederrago agertzen



*Done Milia Kokulakoa (ca. 2000)*

da, zazpi-zortzi zenbakiekin joko polita egiten dela. Zaldi bizkor, saltokari hori gure herri-literaturan gehiagotan ere agertuko da, zorionez. Eman dezagun kasu polit bat. Santa Ageda

bezperan kantatzen ziren koplak-sailetan, lehenengo sarrera bat zetorren, eta gero, Bizkaiko koplariak esaten zuten bezalaxe: notak. Nota horietan *notadu* egiten ziren etxeakoak ordena jakin batean. Lehenengo ‘etxeako jauna’ zetorren, hurrengo ‘etxeako andrea’, hurrengo ‘zaldun nagusia’ edo maiorazkoa, eta laugarrenik, ‘dama gaztea’. ‘Zaldun gaztea’ esaten zitzaion, koplarien hiztegian, etxeako mutil nagusiarri”.

Bizkaiko zaldun gaztearen nota bat agertzen digu ondoren eta hor ageri da aurreko kantetan bezalako zaldi ederra, salto itzela egiten duena, hau da, halako zaldunarentzako moduko zaldia:

*Orain emendik gura genduke  
etxeako zaldun gaztea:  
etxe onetako zaldun gazteak  
kortan daukola zaldie,  
saltu batean pasako leuke  
amar arkuko zubie.*

“Zaldun on batentzat zaldi baliotsu baten jabe izatea arrazoizkoa da. Horrexegatik du zaldi bizkor eta saltokariena, ia hegalaria ere izan daitekeena: *saltu batean pasako leuke / amar arkuko zubie*”.

Beste hainbat gauzari ere erreparatzen die eta ñabardura ugari dakarkigu axalera. Kanta eta koplak zaharretan zenbait gauza errepikatzen direnak daudela esango digu, hau da, batzuen eta besteen artean bat etortze eta antzekotasunak izan arren, aldaerak ere badirela; aldaera estilistiko eta aberasgarriak; elementu batzuk berdintsuak izan arren, batek duena besteak ez du eta honek duen ñabardura hark falta du.

Hitzaldian barrena pieza xahar hauen ederra azpimarratzen digu: “Niri, egia aitortu behar badut, euskarazko herri-literatu-

ra beti iruditu zait eder, baina askotan, eder bezain labur. Laburra esan dut, gure herri-literaturako pieza asko, aldaera oso gutxitan iritsi direlako guganaino. Zenbaitetan aldaera bakarra baino ez dugu.

(...) Bizi garen baino garai hobeagoak ezagutu dituela gure herri-literaturak”.

*Herri-tradizio urria ugaritu ezinaz* ari da geroxeago. Hala ere, badela zorte hobea izan duen piezarik esango digu. “Euskal kantarik ederrenetakoa bezain zaharrenetakoa *Ber(e)terretxeren k(h)antorea* da. Guganaino iritsi diren hamar ahapalditik gorako ereduak ere baditugu, zorionez. (...) Zuberotar kantari on baten ahotsean eder eta hunkigarri da, entzulearen arima bera ere dardarazten du kantuariaren hitzak zein doinuak”.

Horrela utziko dugu atal hau, gure ikertzailea herri-literaturaren altxor bila ari deneko argibide txiki batzuk agertu ondoren.

## **Santa Ageda bezperako koplak zaharrak**

Baina, goian zeharka edo esaten ari zenaren argigarri aipatu dituen Santa Ageda bezperako koplak zaharrez pixka bat gehiago esan gabe ezin etsi. Izan ere, gai horren berri jakin nahi duen edonork noraezean kontuan hartu beharreko lana argitaratu zuen Euskaltzaindiaren *Euskera* agerkarian, 2003ko 1. alean. Argitaratu berri zela, gogotsu irakurri nuen eta orain haren oihartzun txiki bat behinik behin helarazi nahi nioke irakurleari.

Txiki-txikitatik etxean bertan bizi izan zuen tradizio hori, aita koplari zahar bakanetakoa izanik: “Ume-umetatik etxean eta Markina inguruko baserri-atari aurreetan bizi izandako oroitzapen ezin ederragoak ekartzen dizkidate gizon-aldrek kantatzen dituzten koplek. Etxean esan dut, etxean bertan geneukalako, gainera, Markinalde inguruko koplariarik entzune-

netakoa: geure aita zena. Etxean bertan geneukan, gainera, esku-txilin handi galant bat, makila-muturrean jarri ohi dena baino askoz handiagoa. Esku-txilin handi hori erronda-eskean ez zuen nornahik jotzen, esku-txilin handi hori koplari nagusiari zegokion, eta koplari nagusi hori ez zen besterik geure aita maitea baino. Etxean bertan kantatu ohi zizkigun gure aitek gaztetan ikasi eta berak ere asmatutako eske-koplak. Nik beti miraz eta irrikaz entzun ohi nizkion neure aitari ahots ederrez garantzen zituen kopla zoragarriak. Etxean bertan entzuten genuen kopla-sailak hirurogeita hamar kopla-ale baino gehiago zituen (...). Eta, beharbada, era horretako barne-gomutarik ez baneuka, ez nioke kopla zaharrak bildu eta ikertzeari denborarik eskainiko”.

Hemen ere, umetako oroitzapenetan, gorago aipatu dugun bere bokazioaren nondik norakoa iradokitzen digu. Eta geroxeago, hau dio: “Kopla munduan dagoen gairik interesgarriena kopla zaharren teknika dugu. Kopla zaharrak euskal poesia zaharraren estetika fin eta ederrenaren erakusgarri dira. Euskal poesia zaharraren gaina eta bikaina dira kopla zaharrak, inolako dudarik gabe”.

Kopla zaharrak noiz, non, nola kantatzen diren agertuko digu beste paragrafo batean: “Hegoaldean Santa Ageda bezperan kantatzen den ‘Santa (Ageda) eskea’ dugu ezagunena bezain dokumentatuena. Bizkai aldean, erdialdean, ‘Santa Ageda batzea’ esan ohi da Mungia inguruan (Meñakan eta abar). ‘Santa Ageda kantatu’, ‘Santa Ageda eskean ibili’ eta abar forma arruntak dira. Gipuzkoa aldean Ageda hitza aitatu gabe ezaguna da usadioa. Modu horretara, (...) ‘Santa eskea’ da”.

Aterik ate ibiltzeko orduaz, hau diosku: “Gauetz ibiltzen ziren gizon-sailak: abemaritako kanpaiak joz gero, ia eguna argitu arte askotan. Gauetz garai zaharretan kriseilu-argia zutela. Kriseilu-argiarekin ez ezik, lastazuziekin ere ibili beharra izaten zuten, mendi artean galduko ez baziren.



Era honetako zehaztasun askorik ez dugu idatziz. Erronda-kantuan gehienetan gizonezkoak ibili arren, Bizkaiko inauterietan eskola-mutikoak ibiltzen ziren. Nafarroako Baztango ‘Maiak’ direlakoetan, ordea, zuriz jantzitako neskatxak”.

Kopla zaharren erreskaden egitura nagusia azaltzeko koplariengana jo zuen.

“Neure herrialde-inguruan ezagutu ditudan koplariarik eza-gunekin hitz egin dut. Koplariak diodanean, lege zaharreko koplagingtza jarduten zutenak esan nahi dut. (...) Aurkitu ditudan koplariarik aberatsenen izenak hauexek dira: Migel Ibarzabal, Erlatx baserrikoa, Markinakoa, eta bestea, neure aita zena, Paskual Kalzakorta, Etxano baserrikoa, Berriatukoa. Koplari hogeitau urte baino gehiagoan etxerik etxe kantatu gabe zeudenez gero, egun batzuk eskatu zizkidaten koplak berriro memoriora ekartzeko. Gogoan dut, gainera, Migel Ibarzabalek aste bete eskatu zidala aspaldian kantatu gabeko koplak *buruan pasatzeko*, eta gero niri sailean, bat banaka, kantatzeko. Bai egin ere aste bete pasatu ondoren. Bere etxeko sukaldearen erdi-erdian sila banatan jarri, eta bi kopla-sail desberdin kantatu zizkidan.

Kopla-kateak bi zati dituela esan zion Migel Ibarzabalek: lehenengoa *notak* eta bigarrena *eskabidea*. “Notak etxekoei dagozkien koplak dira. Eta behin etxeko guztiak *notadu* edo koplatu ondoren, eskabidea dator. Horra, beraz, lehen bi zati nagusiak, kopla-sailaren ardatza edo bihotza osatzen dutenak. Bi zati hauek kopla-sailaren bizkarrezurra osatzen dute, eta zati bateko eta besteko koplak oso desberdinak dira”. Koplaisailak zati gehiago ere izan ditzakeela dio jarraian, esaterako, Santa Ageda bezperan kantatzen denean, haren bizitza. Eta bizitza hau notak baino lehenago kantatzen da. Gainera, “zati nagusiarekin, notekin, hasi baino lehen, badago notei egiten zaien sarrera bat. Sarrera hori baimen-eskatzea izaten da. (...) Baimen eskatze hau, askotan, kantuz egin beharrean, hitzez



*Karmel aldizkariko bileran (ca. 2000)*

ere egiten zen *kantatu edo errezatu* esanaz. Zergatik? Familian hiltzeren bat izaten bazuten, ez zelako kantatzen. Kantatu beharrean, otoitz labur bat egiten zen”.

Notak zer diren azalduko digu ondoren. “*Nota* hitzak zehatzak dira: hiponimoak edo hitz markatuak. *Kopla* hitza, ordea, esangura zabalagoa, orokorragoa duena: hiperonimoa edo hitz markatu gabea. *Kopla*-saileko nota guztiak *kopla* izango dira, nahi-

taez. Kopla guztiak ez dira, ordea, notak. Kopla-saileko kopla jakin batzuk baino ez dira notak izango. (...) Notak etxean edo baserrian bizi direnen losintxak dira. Koplariak etxe jakin batekoak edo baserri jakin batekoak notatzen dituenean, losintxatu, laudatu egiten ditu. Nota bakoitza losintxa bat da”. Etxekoen nota hauek ordena finko bat izaten dutela diosku. Ez dugu berriro esango, gorago esana dagoelako. Izendatze honetan erabiltzen diren hitzak ez direla bereak diosku, koplariak erabiltzen zituen deitura edo izendatzeak baizik: *zaldun nagusia* eta *zaldun gaztea* batetik eta *dama nagusia* eta *dama gaztea* bestetik. “Erdi Arotikako izendatzea da, artean zaldun eta damei pleitesia edo begirune handia ekartzen zitzaienekoa. Koplariak losintxatzen dituen etxeko guztiak baserritarrak edo kaletarrak baino gehiago jauregitarrak dirudite. (...) etxeko guztiak notatuko ditu koplariak noble edo errege-laguntzaile edo jaun-andre handiki balira bezala”.

“Noblezia da, hortaz, notetako berezitasunik nabarmenetakoa. Etxekoak, koplariaren ahoan, urre-zilarra ugari izango dute, elizkoiak, nobleak, apainak, itxura onekoak, gorpuzkera ederrekoak, langileak, eskuzabalak izango dira. Horrengatik deitzen diogu zati honi notak, notatzen edo gorai-patzen direlako etxekoak. Koplariak, hala ere, nota berak kantatuko ditu batean eta bestean. Baserri bateko etxeko jaunari urrezko bizarra eta zilarrezko espalda dituela badio, hurrengo baserrian ere berdin esango du. (...) Bada, hala ere, zertxobait aldatzen dena. Koplariak lekuan lekuko notak ondo kantatzeko, etxe horretan bizi direnen izenak jakin beharko ditu. Izenak eta etxekoen estadia eta abar. Zergatik? Nahiz nota bera izan, notaren hirugarren bertso-lerroan etxekoaren izena izendatzen da, modu horretara, beraz, losintxak indar handiago hartuko du”.

Nota konposatuak ere badaudela esango digu geroxeago. Nota bakoitzak mezu bat darama: pertsona bakoitzaren noblezia, dotorezia, edertasuna, aberastasuna eta abarrak



*Karmel aldizkariko bileran (2006)*

markatzeko da. “Notetako kopla asko, hala ere, lotura bitxi batez eginak daude. Askotan noten sailean kopla bi lotuta agertzen zaizkigu. Adibiderik famatuena etxeko jaunaren edo zaldun nagusiaren nota da:

*Eder zeruan izarra,  
errekaldian lizarra;  
etxe ontako nagusi jaunak  
urre gorrizko bizarra.*

*Urre gorrizko bizarra eta  
zillar zurizko espalda.  
Errial bikozi egiña dauka  
elizarako galtzada.*

Bi kopla hauek loturik daude. Bigarrenak lehenaren ondoan du zentzua eta ez alderantziz”. Teknika berezi batez lotzen dira, Manuel Lekuonak euskaraz *biburkia* deitzen dio lotura horri. Hiru eta lau kopla lotuak ere ager daitezke koplasail aberatsetan. “Hona lehen eman dugun bikoarekin laukotea osatzeko beste biak:

*Erreal bikoiz galtzada eta  
lauzurikoz ataria;  
etxe barruan betik goraño  
zillarrez eskillaria.*

*Eskillaratan bueltatu eta  
kuarto txiki bat berria,  
aretzek zeukak lau kantoietan  
igeltsu orde z urria.*

Notak ez ezik, gainerako koplak ere berdintsuak direla dio. Esaterako, eskabideko kopla ezagun baten segida legez ematen digu ondorengo hau:

*Etxe onetako Mariye  
ointxe esangotzut egiye,  
ainbat lasterren topau egizu  
ollo pintoen abiye.*

“Kopla ezagun honek zer du atzean? Badakigu eskabidean arrautzak eskatzen direna askotan. Baina arrautza horiek ez dira nolanhikoak, oilo pintoaren habian daudenak baizik”. Kopla horren segida bakarra aurkitu duela dio: Errose Bustintzak Mañarian bildua:

*Ortxe goiko sabayen  
estuén edo nasayen,  
ollotxuen bat egongo dala  
arrautzetxuekin abiyen.*

Etxekoak banan-banan notatzerakoan, batetik bestera igarotzeko, aurkezpen edo sarrera egiteko koplak bat kantatzen dela ere badio: “Batetik bestera pasatzeko, ordea, sarrera-kopla bat kantatu ohi du koplariak, jautzia gogorregia gerta ez dadin. Kortesiak eskatzen duen aurkezpen-kopla bat da hau. Aurkezpen-kopla honek etxeko norbaiten gorantzak eta alabantzak bukatu direla esateaz gainera, beste norbait gorapantzen hasiko dela dio”.

*Nagusi jauna, parkatu,  
ez bazaio ongi notatu.  
Orain (h)asita gura genduke  
etxeko andrea koplatu.*

Hemen utziko dugu herri-literaturaren baratzera egin dugun bisita hau. Norbaitekin hitz-aspertu gozoan murgildu eta orduak igarri gabe igarotzen direnean bezala gertatu zait: berandu dela eta bat-batean moztu beharra... Bai, eten-puntuak. Pixka bat gehiago esan nahian, adibidez, Iparraldeko tradizioek eta hango euskarak berak, gure lagunagan sortzen duten liluraz, miresmenaz gauzatxo batzuk zirrimarratu nahian geratu naiz. Desira hori airean utzirik, agur, Jabier, laster arte!

*Luis Baraiazarra Txertudi*